# BEHARGINTZA

## FORMAKUNTZA ESKAINTZA LEIOA



**2024ko ikastaroak** URTARRILA-UZTAILA

Leioa BEHARGINTZA

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

QR

# LEIOA BEHARGINTZA UDALA







**BEHARGINTZA LEIOA**
Mendibil 3

94 400 41 95 - 94 400 80 51
behargintza@leioa.eus
**behargintzaleioa.net**

Behargintza Leioa Zentroa Leioako udalerriko turismoaren eta ekonomiaren garapenaren eta enpleguaren sustapenaren aldeko apustu sendoa da, eta, beraz, enpresa-sareari ez ezik, Leioan bizi diren edo jarduera ekonomikoa hemen finkatu nahi duten pertsonei ere erreparatzen diegu.

Beraz, hurbiltasuneko garapen ekonomikoko egitura bat gara, non udalerriko langabeen prestakuntza edo kualifikazio profesionala hobetzeko ahaleginak bideratzeaz gain, ekintzailetza sustatzea, tokiko merkataritzari eta udalerriko enpresei arreta ematea ere bideratzen diren, edozein tamainatakoak direla ere.

Leioako Udaleko Enplegu, Ekonomia Sustapen, Merkataritza eta Turismo Sailak, gainerako eragileekin batera, gure udalerriaren garapen eta ongizaterako interes komuna modu jasangarri eta ekitatiboan bultzatzen lan egiten du.

## GURE ESTRATEGIAK

- Herri agente guztien ahaleginak bateratu.
- Lana sortu.
- Enpresa eta ekonomi aukera berriak bilatu.
- Herri ekonomiaren sektore desberdinak bultzatu.
- Tokiko agenteak garapenean informazio teknologiek duten garrantzia aintzat eduki.
- Tokiko agenteak suspertu, beraien esku makina bat tresna jarriz.

## 1 GIS ETA GRASS

**QGIS eta GRASS eta GIS sistemen ("Geographic Information System") erabilerari buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzeko eta analisi eta txosten espazialak egiteko informazio bektoriala eta raster datuak zuzen erabiltzeko ikastaro trinkoa. Ariketa praktikoen bidez, SIG (Informazio Geografikoko Sistema) sistemak erabiltzen ikasiko duzu, eta kalitatezko kartografiak prestatu, maketatu eta entregatuko dituzu txosten edo lanen osagarri gisa.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/01/24 | 2024/02/02 | 09:30-14:30 | 40 | 11 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaro hau ingeniaritza, biologia, topografia, geografia, geologia eta beste arlo teknikoetako profesionalei ez ezik, lan-eremua zabaldu ahal duten administrazioko langileei ere zuzenduta dago. Prestakuntza interesgarria izan daiteke zure lanbide-profilerako, konpetentziaren aldetik plus bat delako. | Behargintza Leioa. |



## ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA

**Norbere kontura lan egin nahi duten eta jarduerari hobeto ekiteko gaitasunak landu nahi dituzten pertsonei zuzenduta dago. Prestakuntza honetan, negozio-ideia hobeto aztertu, estrategia on bat lortzeko baliabide komertzialak optimizatu eta zure merkataritza-proiektua eta bideragarritasun ekonomikoa baloratuko dituzu.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/02/19 | 2024/02/29 | 09:30-13:30 | 35 | 20 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaroan izena emateko, ezinbestekoa da aurretik ekintzailetza- teknikariarekin biltzea, negozio-ideia zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko. | Enpresa mintegia. |

## 2 AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK

**Lanbide-heziketa arautua egin ez duten langabeei zuzendutako ikastaroa, azazkalen oinarrizko zainketa estetikoak ahalik eta segurtasunik eta higienerik handienarekin egiteko oinarrizko ezagutzak ahalbidetzeko.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/02/05 | 2024/02/23 | 09:30-13:30 | 60 | 16 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Estetikako Zerbitzu Osagarriak Profesionaltasun Ziurtagiriaren prestakuntza-unitate bat da (IMPE0108). Hala, parte-hartzaileek lanbidea ezagutu eta prestakuntzarekin jarrai dezakete, eta identitate profesionala lortu, prestakuntza teoriko-praktikoa amaitu eta gero. | Kanpoan. |

## 3 AUTOKONTSUMOKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN TEKNIKARIA

**Energia berriztagarrien eremuan lan egin nahi baduzu, kasu praktikoen bidez oinarrizko ezagutzak eskuratuko dituzu arlo hauetan: kontsumo elektrikoa, eguzki-instalazioaren kokapena eta haren ezaugarriak eta errendimendua, autokontsumoko eguzki-instalazio baten dimentsioak eta osagaiak, eta baita haren errendimendu-, aurrezki- eta errentagarritasun-ratioak ere.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/03/04 | 2024/03/29 | 09:30-14:30 | 60 | 16 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaro hau Leioako langabeei zuzenduta dago bereziki, hazten ari den sektore batean lan egiteko konpetentziak eskuratu nahi dituztenei, hain zuzen. Gutxieneko prestakuntza teknikoa eduki behar dute, eta ez da beharrezkoa energia berriztagarrien eremuan esperientzia izatea. | Kanpoan. |



## 4 NOMINAK, KONTRATUAK ETA ASEGURU SOZIALAK

**Ikastaro hau lanbide-ezagutzak areagotu nahi dituzten administrazioko langabeei zuzenduta dago, sozietate, aholkularitza edo langileen arloko lan-eskaintzetara sarbidea izateko. Ikastaroa amaitzean, enpresa bateko langileen nominak, kontratuak eta aseguru sozialak egin eta kudeatu ahal izango dituzu, eta kudeaketa informatikoaz arduratuko zara.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/04/15 | 2024/04/30 | 09:30-14:30 | 60 | 16 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaroa 18 urtetik gorako langabeei zuzenduta dago. Leioan erroldatutako eta enpresa-kudeaketarako motibazioa duten herritarrek lehentasuna izango dute. | Behargintza Leioa. |

## 5 ORGA ETA TRANSPALETA ERABILTZEKO BAIMENA ETA BILTEGIAREN KUDEAKETA

**Logistikaren eta biltegiaren eremua izugarri aldatzen ari da. Kontsumo- eta banaketa-zentro handiak ezarri dira, eta, horregatik, ezinbestekoa da prebentzioaren eta lan-arriskuen ezagutzak ziurtatzea, salgaiak eramateko orga edo transpaleta segurtasunez erabiltzen dituzula bermatzeko. Ikastaro honetan, biltegia kudeatzeko eta produktuak antolatzeko oinarrizko ezagutzak eskuratuko dituzu eta orga eta transpaleta erabiltzeko baimena.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/05/06 | 2024/06/15 | 09:30-13:30 | 60 | 20 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Lan-merkatuari begira, orga edo transpaleta segurtasunez erabiltzen dakitela ziurtatu behar duten Leioako biztanleei zuzenduta dago. Ez da derrigorrezkoa logistikaren eta biltegiaren alorretan esperientzia izatea. | Kanpoan. |



## 6 ZAINKETA ARINGARRIAK

**Ikastaro honen helburua gaixo terminalari eta/edo hiltzen ari den pertsonari arreta emateko eta gaixotasunaren sintomak eta osasun-aldaketak detektatu eta arazoak prebenitzeko formakuntza eskuratzea da. Hori guztia arreta integratuaren ikuspegitik, gaixoa eta haren ingurunea eta heriotzaren osteko dolua aintzat hartuta.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/06/03 | 2024/06/12 | 09:30-14:30 | 40 | 16 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Mendekotasuna duten pertsonen zainketaren eremuan lan egiteko eta haien bizitzaren amaieran laguntzeko eta behar bezala jarduteko ezagutza handiagoak behar dituen udalerriko edonork eman dezake izena. | Behargintza Leioa. |



## 7 ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA

**Norbere kontura lan egin nahi duten eta jarduerari hobeto ekiteko gaitasunak landu nahi dituzten pertsonei zuzenduta dago. Prestakuntza honetan, negozio-ideia hobeto aztertu, estrategia on bat lortzeko baliabide komertzialak optimizatu eta zure merkataritza-proiektua eta bideragarritasun ekonomikoa baloratuko dituzu.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2024/07/01 | 2024/07/10 | 09:30-13:30 | 35 | 20 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaroan izena emateko, ezinbestekoa da aurretik ekintzailetza- teknikariarekin biltzea, negozio-ideia zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko. | Enpresa mintegia. |

# BEHARGINTZA

## FORMAKUNTZA ESKAINTZA LEIOA



Izen-emate orria

Leioa BEHARGINTZA

Bizkaia
enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, inclusión social e igualdad

QR

# IZEN-EMATE FITXA

**IZEN-EMATEA BEHARGINTZA LEIOAN edo behargintzaleioa.net web orrian.**
**Izen-emateak 2024ko urriaren 2tik aurrera egingo dira.**

IZEN-ABIZENAK: ______________________________________________

______________________________________________

NAN: ______________________________________________

TELEFONOA: ______________________________________________

HELBIDE OSOA: ______________________________________________

UDALERRIA: ______________________________________________

HELBIDE ELEKTRONIKOA: ______________________________________________

EGINDAKO IKASKETAK: ______________________________________________

HIZKUNTZA LEHENETSIA: ☐ EUSKARA ☐ GAZTELANIA

BEHARGINTZA LEIOAN APUNTATUTA ZAUDE? ☐ BAI ☐ EZ

## IKASTAROAK (Markatu "X" batekin egin nahi duzun ikastaroa)

1 GIS ETA GRASS

2 AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK

3 AUTOKONTSUMOKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN TEKNIKARIA

4 NOMINAK, KONTRATUAK ETA ASEGURU SOZIALAK

5 ORGA ETA TRANSPALETA ERABILTZEKO BAIMENA ETA BILTEGIAREN KUDEAKETA

6 ZAINKETA ARINGARRIAK